

IBILTUR Aisia 2023/IBILTUR Ocio 2023

Aisia-turisten tipologiak Euskadin

Tipologías de turistas de ocio en Euskadi

2024ko martxoa | Marzo 2024

EZAUGARRIAK

Lanaren zuzendaritza:

IKERTALDE aholkularitza-taldeak egindako lana

Erredakzio-taldea:

Yolanda García Díez (proiektuaren zuzendaria)
Julio A. Jiménez Arévalo eta Kepa Salaverria
Folgado (analisi estatistikoko aholkulariak)

Sortze-data:

2024ko martxo

Bertsioa

1

Iruzkina

CARACTERÍSTICAS

Dirección del trabajo:

Trabajo realizado por IKERTALDE grupo consultor

Equipo redactor:

Yolanda García Díez (Directora del proyecto)
Julio A. Jiménez Arévalo y Kepa Salaverria Folgado
(Consultores en análisis estadístico)

Fecha de creación:

Marzo 2024

Versión

1

Comentarios

AISIA-TURISTEN TIPOLOGIAK EUSKADIN

EAEko turismo-eskaintzaren aniztasuna askotariko eskari-multzora modu berezian iristeko duen gaitasunaren araberakoa da. Naturako atsedeen-turismoak, hiriko turismoak, turismo-ibilbideek, kultura-turismoak, kostaldeko turismoak eta turismo gastronomikoak, besteak beste, eskaintza berezia eta aldi berean osagarria marrazten dute Euskadiko helmuga guztietan.

Bidaia motibazio nagusien arabera, turistek hainbat jardura egiteko joera dute egonaldian, eta horixe izango da tipologiaren azterketaren lehen helburuetako bat: turistek egiten dituzten oinarriko jardueren inguruan marrazten dituzten orientazio errealean mapa bat erakustea.

Tipologiaren azterketaren bigarren eta helburu nagusia jardura horiek helmugan arabera nola aldatzen diren sakontzea izango da, edo bisitarien jatorriarekin eta portaerarekin lotzea.

Horretarako, tipifikazio-analisiaren helburua da talde barruko ahalik eta antzekotasun handienak bilatzea, eta, aldi berean, ahalik eta alderik handienak sortzea balizko turista-multzoen artean.

Azterketa honetan, talde horiek sortzeko aldagairik esanguratsuenak honako hauei lotutakoak izan dira: informazio soziodemografikoa, ostatu hartzen duten establezimendu-mota, ostatu-gaueko kopurua eta, bereziki, portaera turistikoari lotutakoak, hala nola gaua igarotzeko helmuga, jarduerak egitea, Euskadira aisia-arrazoiengatik itzultzeko asmoa, turisten fidelizazioa, helmuga alternatiboak egotea eta bidaia egiteko denboraldia.

Taldeak sortzeko garaian, eredu hobekien islatzen duten aldagaiak ostatu hartzen duten helmuga turistikoa, aisiagatik itzultzeko asmoa, enoturismoa, euskal gastronomiaz gozatzea, gastronomiari lotutako jarduerak, kostaldeko turismoari lotutakoak eta abar izan dira, eta neurri txikienean islatzen dutenak, berriz, sexua, adina eta gutxi egiten diren jarduerak (jolas- eta jai-jarduerak, ikuskizunetara joatea eta abar).

TIPOLOGÍAS DE TURISTAS DE OCIO EN EUSKADI

La diversidad de la oferta turística vasca viene dada por su capacidad de acceder de manera singular a un conjunto muy variado de demanda. Turismo de descanso en la naturaleza, turismo de ciudad, rutas turísticas, turismo cultural, turismo costero y turismo gastronómico entre otros dibujan una oferta diferenciada y a la vez complementaria en todos los destinos de Euskadi.

De acuerdo con las motivaciones principales del viaje, las y los turistas tienden a ejercer diferentes actividades durante su estancia y este será uno de ellos primeros objetivos del análisis de tipologías: mostrar un mapa de las orientaciones reales que los turistas dibujan alrededor de las actividades básicas que realizan.

El segundo y principal objetivo del análisis de tipologías será profundizar en como varían estas actividades en función de los destinos o bien en asociación con la procedencias y el comportamiento de los visitantes.

Para ello, el análisis de tipificación pretende buscar las máximas similitudes intragrupalas que a la vez supongan las máximas diferencias entre los conjuntos posibles de turistas.

En este análisis se han considerado como variables más significativas para la creación de estos grupos, las relacionadas con: la información sociodemográfica, el tipo de establecimiento donde se alojan, el número de pernoctaciones que realizan, así como las más asociadas al comportamiento turístico, como son el destino donde pernocta, la realización de actividades, la intención de volver a Euskadi por motivo de ocio, la fidelización de las y los turistas, la existencia de un destino alternativo y la temporada en la que realizan el viaje.

A la hora de generarse los grupos, las variables que mejor explican el modelo han resultado ser el destino turístico donde se alojan, la intención de volver por ocio, el enoturismo, disfrutar de la gastronomía vasca y las actividades relacionadas con la gastronomía y el turismo costero, etc., mientras que entre las que menos explican se encuentran el sexo, la edad y las actividades menos practicadas (lúdico-festivas, asistencia a espectáculos, etc.).

1. mota (%24,8). Hiriko turismoa Bilbon eta Gasteizen, jatorri nazionala eta asteburuetan

Euskal Autonomia Erkidegoko beste helmuga batzuetan ere mota horretako turistak daude, baina nagusiki Bilbon (%39,5) eta Gasteizen (%39).

Horien jatorria %100 nazionala da, eta mota horretan egonaldi laburrak dira nagusi: turisten %41ek batez beste bi gau igarotzen dituzte Euskadin.

Bere jarduera nagusiak hiriko turismoan kokatzen dira (%94) eta %100ak dio Euskadira Euskal gastronomiaz goatzera datorrela, nahiz eta %74k ez duen inolako jarduerarik egiten Euskal kultura gastronomikoa ezagutzeko, ezta enoturismoarekin lotutako jarduerak egiteko ere (%2,5ek baino ez dituzte egiten).

Talde horren barruan, turistek hotel-estabuzimenduetan hartzen dute ostatu gehienbat (%82), eta bidaiatzeko modurik ohikoena bikotean egitea da (%52).



Clase 1 (24,8%). Turismo de ciudad en Bilbao y Vitoria-Gasteiz, de origen nacional y en fines de semana

Aunque también se encuentran turistas de esta clase en otros destinos de Euskadi predominantemente se localizan en Bilbao (39,5%) y en Vitoria-Gasteiz (39%).

Su origen es 100% nacional y predominan en esta clase las estancias cortas: el 41% de las y los turistas pasan de media dos noches de estancia en Euskadi.

Sus actividades principales se enmarcan en el turismo de ciudad (94%) y el 100% declara que viene a Euskadi a disfrutar de la gastronomía vasca, a pesar de que el 74% no realiza ninguna actividad para conocer la cultura gastronómica vasca ni para llevar a cabo actividades relacionadas con el enoturismo (apenas el 2,5% las realizan).

Dentro de esta agrupación, las y los turistas se alojan mayoritariamente en establecimientos hoteleros (82%) y la forma más habitual de viajar es en pareja (52%).



2. mota (%16,7). Nazioarteko turista, nagusiki Bilbon ostatatua, interes kulturalarekin.

Mota hori osatzen duten turisten %100 nazioartekoak dira, eta, nazioarteko beste merkatu batzuetakoak ez ezik (%36,6), Erresuma Batukoak ere badira. Nazioarteko izaera dutenez, gehienek (%59) hegazkina erabiltzen dute Euskadira iristeko garraiobide gisa.

Batez ere Bilbon hartzen dute ostatu (%51), baina Euskadiko gainerako lekuetan ere badaude. Talde horretako turisten %84rentzat hau da Euskadira egiten duten lehen bisita, eta bereizten dituen ezaugarri bat da %36k uste duela ez duela uste datozen 12 hilabeteetan itzuliko denik.

%51k 4 eta 7 egun arteko egonaldiak egiten ditu, eta gehienak hoteletan (%80).

Talde honetako kideen artean, aipagarriak dira mota horretako turisten %88k eta %89k egindako kulturaturismoko eta hiriko turismoko jarduerak. Euskal gastronomiaz ere gozatzen dute turisten %99k, nahiz eta ez duten enoturismorik egiten, eta %62k baino ez du esaten Euskal kultura gastronomikoa ezagutzeko jarduerak egiten dituela. Turista horien joan-etorri gehienak (%55) udako hilabeteetan egiten dira.

Clase 2 (16,7%). Turista internacional mayoritariamente alojado en Bilbao con intereses culturales.

El 100% de los y las turistas que conforman esta clase son de procedencia internacional destacando, además de los originarios de otros mercados internacionales (36,6%), quienes proceden del Reino Unido. En consecuencia con su carácter internacional, utilizan mayoritariamente el avión (59%) como medio de transporte para llegar a Euskadi.

Se alojan principalmente en Bilbao (51%) aunque también están presentes en el resto de los destinos de Euskadi. Para el 84% de las y los turistas de este grupo esta es su primera visita a Euskadi y una característica que les distingue es que el 36% cree poco probable que vuelva en los próximos 12 meses.

El 51% realiza estancias de entre 4 y 7 días y se alojan mayoritariamente en hoteles (80%).

Son relevantes, entre los componentes de este grupo, las actividades de turismo cultural y de turismo de ciudad realizadas por el 88% y el 89% respectivamente de las y los turistas de esta clase. También el disfrute de la gastronomía vasca es practicado por el 99% de las y los turistas aunque no practican enoturismo y solo el 62% afirma realizar actividades para conocer la cultura gastronómica vasca. La mayoría de los desplazamientos de este conjunto de turistas se realiza en los meses de verano (55%).



Nazioarteko jatorria |
Origen internacional

100%



Hegazkina |
Avión

59%



Helmuga: Bilbo |
Destino: Bilbao

51%



Lehen bisita
Euskadira |
Primera visita a
Euskadi

84%



Kultur turismoa |
Turismo cultural

88%



Hiriko turismoa |
Turismo de ciudad

89%



Egonaldiak (gauak) |
Estancias (noches)

4-7

3. mota (%16,4). Kostaldeko turismoa udako denboraldian, egonaldi luzeagoekin.

Kostaldea da mota horretako turisten helmuga nagusia (%60), eta uda, berriz, gehien mugitzen diren denboraldia (%70).

Talde honetako turistik, beste klase batzuen gainetik, ibilbide turistikoak (%92), naturan atsedean hartzeko jarduerak (%78) eta turismo aktiboa (%71) egiten dituzte. Ezin bestela izan, Kostaldeko turismoaren praktika ere garrantzitsua da (%86).

Egonaldi luzeenak dituen mota da Euskadin; izan ere, erdiak baino gehiagok (%54) 4 eta 7 gau arteko egonaldiak egiten ditu. Talde horretako turisten %41ek hotel-establezimenduetan hartzen dute ostatu, baina baita landa-ostatuetan eta kanpinetan ere. Mota horretan, merkatu nazionalak eta nazioartekoak daude, nahiz eta lehenengoan presentzia handiagoa izan (%62).

%57k Euskadira egindako lehen bisita da, eta ia %70ek adierazi du beste norako batera joan dela ostatu-plazarik aurkitu izan ez badu.

Clase 3 (16,4%). Turismo costero en temporada de verano con estancias más largas.

La costa es el destino principal de las y los turistas pertenecientes a esta clase (60%) y el verano la temporada en la que se desplazan mayoritariamente (70%).

Las y los turistas incluidos en este grupo practican, por encima de otras clases, rutas turísticas (92%), actividades de descanso en la naturaleza (78%) y turismo activo (71%). Como no podía ser de otra forma es relevante también la práctica de turismo costero (86%).

Es la clase con estancias más largas en Euskadi ya que más de la mitad (54%) realizan estancias de entre 4 y 7 noches. El 41% de las y los turistas pertenecientes a este grupo se aloja en establecimientos hoteleros, aunque también lo hacen en alojamientos rurales y camping. Confluyen en esta clase los mercados nacionales e internacionales aunque con mayor presencia de los primeros (62%).

Para el 57% es su primera visita a Euskadi y casi el 70% declara que se hubiera desplazado a otro destino si no hubiera encontrado plaza de alojamiento.



Kostaldeko helmugak |
Destinos de costa

60%



Atsedena naturan |
Descanso en la naturaleza

78%



Joan-etorriak udan |
Desplazamientos en verano

70%



Turismo aktiboa |
Turismo activo

71%



Ibilbide turistikoak |
Rutas turísticas

92%



Egonaldiak (gauak) |
Estancias (noches)

4-7

4. mota (%13,6). Asteburuko turista nazionala, helmuga nagusia Donostian duena, Euskal kultura gastronomikoak erakarrita.

Mota horretako turistena ia %60k Donostian hartzen du ostatu, eta batez ere turismo-denboraldietatik kanpo (%43).

Gehienak jatorri nazionalako turistak dira (%98), eta horien artean Madrilgo Erkidegotik etorritako turistak nabarmentzen dira (%27).

Jarduerari dagokionez, Euskal kultura gastronomikoa ezagutzeko interesa (%75) eta enoturismoarekin lotutako jarduerak (%55) nabarmentzen dira. Ia %100ek Euskal gastronomiaz gozatzeko jarduerak egiten ditu.

Turista gehienek (%87) hoteletan hartzen dute ostatu, eta gehienek (%40) bi gaueko egonaldiak egiten dituzte Euskadin. Datozen 12 hilabeteetan itzultzeko probabilitate handia aitortzen duten taldea da; izan ere, %53k segurtasunez dio datozen 12 hilabeteetan itzuliko direla.

Gehienak (%61) bikotekidearekin bidaiatzen dute, eta talde horretan 30 eta 39 urte bitartekoak (%25) dira ohikoena.

Clase 4 (13,6%). Turista nacional de fin de semana con destino predominante en Donostia/San Sebastián atraídos por la cultura gastronómica vasca.



Casi el 60% de las y los turistas pertenecientes a esta clase se aloja en Donostia / San Sebastián y lo hace principalmente fuera de las temporadas turísticas (43%).

En su mayoría son turistas de origen nacional (98%), entre los que destacan las y los turistas procedentes de la Comunidad de Madrid (27%).

En cuanto a las actividades, se distinguen por su interés en conocer la cultura gastronómica vasca (75%) y también por la realización de actividades relacionadas con el enoturismo (55%). Casi el 100% ha realizado actividades de disfrute de la gastronomía vasca.

Se trata de turistas que se alojan mayoritariamente en hoteles (87%) donde predominantemente (40%) disfrutan de estancias de dos noches en Euskadi. Es un grupo que declara una probabilidad muy alta de volver en los próximos 12 meses ya que el 53% afirma con seguridad que volverán en los próximos 12 meses.

Mayoritariamente viajan en pareja (61%) y en este grupo también destaca la categoría de edad de 30 a 39 años (25%) como más frecuente.



5. mota (%10,6). Enoturismoa Arabako Errioxan

Ezin bestela izan, mota horretako ia partaideen %100ek enoturismo-jarduerak egiten ditu Arabako Errioxan (%97,2).

Datozen 12 hilabeteetan itzuliko diren ala ez jakiterakoan dagoen zalantza (%52k ez daki itzuliko den ala ez) turista-talde horren definizioaren ezaugarria da.

Jatorri nazionalako pertsonak dira gehienak (%78), eta haien jatorri nagusia Euskadi da (%29). Turisten %90ek hotel-establezimenduak hartzen dituzte, eta haien egonaldi nagusia (%54) bi gaueko da.

Arabako Errioxara sariago egiten dute bisita denboraldi turistikoetatik kanpo (%47), eta kasuen %63an bikotekidearekin etortzen dira.

Gastronomiarekin eta enoturismoarekin lotutako jardueraz gain, ibilbide turistikoak (%72) eta kultura-turismoko jarduerak (%75) egiten dituzte ostatu hartzen duten udalerrietan. Gizonen presentzia handiena duen mota da (%61).

Clase 5 (10,6%). Enoturismo en Rioja Alavesa



Como no podía ser de otra forma, casi el 100% de los componentes de esta clase realiza actividades de enoturismo en Rioja Alavesa (97,2%).

La indecisión a la hora de saber si volverán en los 12 próximos meses (52% no sabe si volverá) es característica en la definición de este grupo de turistas.

Se trata de personas de origen nacional mayoritariamente (78%) cuya principal procedencia es Euskadi (29%). El 90% de las y los turistas se alojan en establecimientos hoteleros y su estancia predominante (54%) es de dos noches.

Su visita a Rioja Alavesa se realiza de manera más frecuente fuera de las temporadas turísticas (47%) y en el 63% de los casos vienen acompañado de su pareja.

Además de las actividades relacionadas con la gastronomía y el enoturismo, realizan rutas turísticas (72%) y actividades de turismo cultural (75%) en los municipios donde se alojan. Es la clase donde mayor presencia de hombres se encuentra (61%).



6. Mota (%10,5). Barne-turismoa, errepikatzailea, Euskadiko kostaldean eta barnealdean bakarrik egonaldiak dituen

Mota horretako turistek kanpinean hartzen dute ostatu gehienbat (%52), baina hurrengo aukera gisa landa-ostatueta ere hartzen dute ostatu. Ostatu hartzen duten helmugei dagokienez, ia berdintasunez banatzen dira kostaldeko (%51) eta barrualdeko (%48) helmugen artean.

Nagusiki jatorri nazionalen turistak dira, eta bereziki Euskaditik etorritakoak (%42,5). Jatorriaren hurbiltasunaren ondorioz, gehienak (%86) Euskadira egindako bisitaren errepikatzaileak dira, eta %65ek datozen 12 hilabeteetan segurtasunez itzuliko dela baieztatzen dute.

Naturan atseden hartzeko jarduerak (%70) eta turismo aktiboa (%68) besterik egiten ez dituzten turistak dira; beraz, beste taldeetatik gehien bereizten dituen ezaugarria beste edozein motatako jarduerarik eza da, gastronomiarekin lotutakoak izan ezik (%84).

Klase honetako kideen artean, bidaiatzeko modurik ohikoena gazteak eta/edo haurrak dituzten helduen taldeetan izaten da (%43). Batez ere udan egiten dituzte joan-etorriak (%51), baina urteko beste denboraldi batzuetan ere egiten dituzte.


Clase 6 (10,5%). Turismo interno, repetidor, con estancias exclusivamente en la costa e interior de Euskadi.

Las y los turistas que pertenecen a esta clase, se alojan mayoritariamente en camping (52%), aunque también lo hacen, como siguiente alternativa, en alojamientos rurales. En cuanto a los destinos donde se alojan, se distribuyen casi equitativamente entre los destinos de costa (51%) e interior (48%).

Principalmente se trata de turistas de origen nacional y en particular procedentes de Euskadi (42,5%). La cercanía de su procedencia hace que la mayoría sean repetidores de su visita a Euskadi (86%) y que el 65% afirme que volverá en los próximos 12 meses con seguridad.

Se trata de turistas que realizan simplemente actividades de descanso en la naturaleza (70%) y turismo activo (68%), por lo que la característica que más les distingue de otros grupos es la ausencia de cualquier otro tipo de actividades, excepto las relacionadas con la gastronomía (84%).

La forma social de viajar más frecuente, entre los miembros de esta clase, es en grupos de personas adultas con jóvenes y/o niños/as (43%). Principalmente realizan sus desplazamientos en verano (51%) aunque también lo hacen en otras temporadas del año.



7. mota (%7,4). Turista, batez ere frantsesa, gastronomiarekiko edo beste jarduera batzuekiko lehentasunezko motibaziorik gabea eta egonaldi oso laburrak dituenak kostaldean.

Mota horretako turistak bereizten dituen ezaugarri nagusia da turista horiek gastronomiarekin lotutako jarduerak pisu txikiagoa dutela. %63k horrekin lotutako jarduerak egiten dituen arren, zifra hori oso urrun dago beste taldeetako turistek egiten dituzten horrelako jardueretatik.

Guztira, nazioarteko turistak dira nagusi (%78), eta Frantziatik etorritakoak nabarmentzen dira (%38). Bizilekutik Euskadira hurbil dagoela uste da; izan ere, gehienek (%75) ibilgailu pribatua erabiltzen dute helmugara iristeko garraio bide gisa.

Talde horretan garrantzitsuak dira egonaldi oso laburrak, kategoria ohikoena Euskadin gau bakar batean ostatu hartzea (%38). Talde horretako kide gehienak kostaldean daude (%47), baina hiru hiriburuetan eta Euskadiko barnealdean ere badaude.

Euskadin egindako jarduerari dagokienez, jarduera horien praktika ia hutsala da gainerako turista-taldeekin alderatuta; gehienek, kostaldean ostatu hartuta egoz narren (%47), ez dute kostaldeko turismo-jarduerarik egiten (%73), ia %60k adierazten dute ez dutela inolako kultura-jarduerarik egiten, ezta ibilbide turistikorik ere (ziurrenik, egonaldi laburrak dituztelako), %55ek baino ez dute hiriko turismoa egiten, etab.

Beste taldeetan baino turista gazteagoek osatutako mota da, baina ez bakarrik. Bereizi egiten ditu taldea osatzen duten turisten %24 30-39 urteko geruzan sailkatzen dela, eta mota horretan agertzen dela 18 eta 24 urte bitarteko turisten kopuru handiena beste batzuen aldean.

Turista gehienak (%66) ez ziren beste norako batera joango ostatu-plazarik aurkitu ezean; hotel-estabuzimenduetan hartzen dute ostatu nagusiki (%70), eta %61 errepikatzaileak dira.

Clase 7 (7,4%). Turista, principalmente francés, sin motivaciones preferentes hacia la gastronomía u otras actividades y con estancias muy cortas en su mayor parte en la costa.

La principal característica que distingue a las y los turistas de esta clase, es que se trata de turistas donde la realización de actividades relacionadas con la gastronomía tiene menor peso. A pesar de que el 63% sí realiza actividades relacionadas con ella, esta cifra es muy lejana a la práctica de este tipo de actividades que realizan las y los turistas componentes de otros grupos.

En este conjunto predominan las y los turistas de origen internacional (78%), destacando las y los que provienen de Francia (38%). Se presupone cierta cercanía de su lugar de residencia hasta Euskadi ya que una amplia mayoría (75%) utiliza el vehículo privado como medio de transporte para llegar al destino.

Son relevantes en este grupo las estancias muy cortas, donde la categoría más frecuente es alojarse solamente una noche en Euskadi (38%). El destino donde más se encuentran componentes de este grupo es en la costa (47%), aunque también están presentes en las tres capitales y el interior de Euskadi.

En cuanto a las actividades realizadas en Euskadi, su práctica es casi nula en comparación con el resto de los grupos de turistas, la mayoría, a pesar de estar alojados en costa (47%), no realiza actividades de turismo costero (73%), casi el 60% declara no realizar ninguna actividad cultural, ni rutas turísticas (posiblemente debido a sus cortas estancias), apenas un 55% práctica turismo de ciudad etc.

Se trata de una clase compuesta por turistas más jóvenes que en otros grupos, aunque no exclusivamente. Les distingue que el 24% de las y los turistas que conforman el grupo se clasifican en el estrato de 30 a 39 años y que es la clase donde mayor número de turistas de 18 a 24 años aparece con respecto a otras.

La mayoría de las y los turistas no se hubiera desplazado a otro destino (66%) en caso de no encontrar plaza de alojamiento, se alojan principalmente en establecimientos hoteleros (70%) y el 61% son repetidores.



Nazioarteko jatorria |
Origen internacional

78%



Frantziatik datoz |
Provienen de
Francia

38%



Egonaldiak (gauak) |
Estancias (noches)

1



Helmuga: Euskal
kosta |
Destino: Costa
vasca

47%